



## **2009ko DANBORRADA KO KARTELA** **AUKERATZEKO LEHIAKETA - ELGOIBAR**

Elgoibarko Udaleko Kultura Batzordeak lehiaketa antolatu du 2009ko Danborradako kartela aukeratzeko.

### **OINARRIAK**

**LEHENA.**- Lehiaketa honetan 18 urtetik gorako edozeinek har dezake parte.

**BIGARRENA.**- Teknika librea izango da (argazkia, diapositiba, pintura, marrazkia, collagea, e.a.). Lanak euskarri gogorrean aurkeztuko dira.

**HIRUGARRENA.**- Lanaren neurria honako hau izango da: A 2 edo proportzionala.

**LAUGARRENA.**- Ezinbestekoa izango da ondorengo testua agertzea, diapositiba bidez aurkezturiko lanetan izan ezik:

## **“ELGOIBARKO DANBORRADA 2009”**

**BOSGARRENA.**- Saria **HIRUREHUN EUROkoa (300 €)** izango da.

**SEIGARRENA.**- Lanak Kultur Etxean aurkeztu beharko dira, **2009ko MAIATZAREN 8ko**, eguerdiko 13:00ak baino lehen.

**ZAZPIGARRENA.**- Lanak egilearen sinadurarik gabe aurkeztuko dira eta atzeko aldean “leloa” eraman beharko dute. Honekin batera, kartazal itxi batean partehartzailearen datu pertsonalak eta NANaren fotokopia bidaliko dira, eta kartazalaren gainean lanaren “leloa” jarriko da.

**ZORTZIGARRENA.**- Saritu gabeko lanak epaimahaiaren erabakia jakinarazi ondoren jaso ahal izango dira. Horretarako, **HOGEITA HAMAR (30) EGUNEKO** epea izango da. Aipatutako epean lanak jaso ezean, egileak galdutzat eman dituela pentsatuko du Udalak; eta ondorioz, egileari inolako eskubiderik aitortu eta ordainik eman gabe, egoki irizten dion moduan erabiliko ditu.

**BEDERATZIGARRENA.**- Saritutako lana Udalaren esku geldituko da. Halaber, inprimatzeko, argitaratzeko, ezagutarazteko eta gainontzeko eskubide guztiak Udalak berak izango ditu.

**HAMARGARRENA.**- Epaimahaiaren erabakia apelaezina izango da. Erabakia hartuko den egun berean jakingo da epaimahaia nork osatuko duen. Epaimahaiak argituko ditu oinarri hauei buruz sor daitezken zalantzak.

**HAMAIKAGARRENA.**- Lehiaketara aurkezteko, goitik behera onartu beharko dira oinarriak.



## **CONCURSO DE ELECCIÓN DEL CARTEL DE LA TAMBORRADA DE 2009- ELGOIBAR**

La Comisión de Cultura del Ayuntamiento de Elgoibar convoca un concurso para la elección del cartel de la Tamborrada 2009, con arreglo a las siguientes:

### **BASES**

**PRIMERA.-** Podrán participar en este concurso todos los que lo deseen, mayores de 18 años.

**SEGUNDA.-** La Técnica a emplear será libre (fotografía, diapositiva, pintura, dibujo, collage, etc.) y se presentará sobre soporte rígido.

**TERCERA.-** El tamaño de las obras será tamaño de A 2 ó proporcional.

**CUARTA.-** Deberá constar inexcusablemente, el siguiente texto, a excepción de los trabajos presentados bajo la técnica de diapositiva:

### **“ELGOIBARKO DANBORRADA 2009”**

**QUINTA.-** Se adjudicará un premio único de **TRESCIENTOS EUROS (300 €)**

**SEXTA.-** Los trabajos deberán entregarse en la Casa de Cultura, antes de las 13:00 horas del **8 de MAYO de 2009**.

**SÉPTIMA.-** Los trabajos deberán ser presentados sin firma del autor y bajo un lema que figurará escrito al dorso acompañado de un sobre cerrado, figurando en su exterior el mismo lema que en el trabajo presentado. En el interior del sobre constarán los datos personales del autor, y una fotocopia del D.N.I.

**OCTAVA.-** Los trabajos no premiados podrán ser retirados en el plazo de TREINTA (30) DÍAS, contados a partir del fallo del jurado. Transcurrido el plazo citado sin que los autores los hayan retirado, se entenderá que renuncian a ellos, y el Ayuntamiento podrá disponer libremente de los mismos, sin reconocer sobre éstos derecho de reclamación o indemnización.

**NOVENA.-** El trabajo premiado quedará en propiedad del Ayuntamiento, quien se reserva todos los derechos relacionados a su impresión, publicación, difusión, etc.

**DÉCIMA.-** El fallo del jurado será inapelable. La composición del jurado se dará a conocer el mismo día del fallo. El jurado podrá resolver cualquier duda que se presente en la interpretación y aplicación de estas bases.

**UNDÉCIMA.-** El hecho de presentarse al concurso implica la plena aceptación de las bases que lo regulan.